

# EUSKAL INTELEKTUALEN BIDEGURUTZEA

Joxe Manuel Odriozola

Intelektuala eta euskalduna izatea, ezinezkoa ez bada ere, arras gaitza da, halakoak bizi duen ideologiazko eta kulturazko zurrunbiloaren ildoan. Lantxo honetan zerbait nabarmendu nahi izan badut, ezintasun horren mugak non egon daitezkeen seinalatzea izan da, beste deusik baino lehen. Hemengoak ere, nola ez bada, bere kulturatxoa kultura unibertsalarekin uztartu eta osatu nahi izan du, baina bestetan (herri-nazio "normalizatueta") ez bezala, behaztoparri sendo batekin topatu da bere intelektualgintzan. Kultura unibertsalerako zubi "zuzenik" gabe alegia. Zubia, izan ere, bere herriaren irenskailua den auzo-estatuaren bitartekotzaz barne-muineraino baldintzaturik dago, eta jakintza unibertsalaren iturri zuzenetik edan beharrean, bera ohartu baino lehen jadanik pentsamenduaren kategoriak Estatu horren eraginez taxutuak daude. Guztia esateko, esan beharra dago, euskaraz idaztea ere ez zaiola aski halakoari, aipatu berri dugun bitartekotza hori ezabatzeko jarrera kritiko eta zorrotzaz babesten ez bada.

Intelektuala eta euskaltzalea aldi berean izatea askorentzat ezkongaitza izan bada, seguruenik ez da izan halakoak jatorriz euskaldungotik ez datozelako edo. Etorkiz eta jatorri etnikoz intelektual asko euskaldunak izan dira. Alabaina, banaka batzuek ezik, beste guztiek "unibertsalagoak" izatea aukeratu dute. Unibertsalago izatea, hegoaldean espainolago eta iparraldean frantsesago izatean datza azken funtsean. Jakintza eta kultura "unibertsala", gauza jakina denez, burgesiaren gidaritzapean eraikitako estatuen bitartez moldatua eta oratua izan da, aurretikako eliz aristokraziaren hura salbu.

Gertatu izan den horretan "tranparen" bat ote zegoelako ustean, karlismoaren azken hondarretan lehenik eta nazionalismoaren sorreran gero, euskal intelektualtzat defini daitezkeen irudiak jaio izan dira gure herrian. Joera hau gero eta nabarmenago agertu izan da gerra ondoko euskalari eta jakintzu batzuen aldetik. Azkenean, ezkongaitza zena ezkongarria iruditu izan da, euskaltzaletasun eta unibertsaltasun baloreak bat eginez euskaldun eta kultura unibertsalaren aldeko aukera egin nahi izan da.

Nik ez nuke esango azken aukera honek porrot egin duenik, baina begien bistan dago, modernotasunaren tasun guztiek ezarri ohi dituzten balditzapen errealak direla bide, ezkontza honen krisialdia. Ez da batere erraza goizean "El País" irakurtzea eta arratsaldean euskal intelektual sentitzea, adibide arrunt bat jartzeko. Badakit egunkari hori edo antzekorik irakurtzen duenak

baieztapen hau ukatu egingo didala, eta ukatu honelako arrazoi-argudioren bat erabiliz: jakintzabide unibertsalen eramaile izateko modu bakarra eduki horien zabalkunde-saretan murgiltzea beste biderik ez dagoela eta hori eskuragaitza dela euskaratik eta Euskal Herria soil-mugatutik, alegia. Erantzun honetan arrazoirik ez zaio falta halakoari. Hori ordea, egiaren erdia besterik ez da, eta beste erdiak zapuztu izan ditu orain arte euskal intelektualaren asmo on guztiak. Jakintza eta egia, botere-mekanismoen inguruan ekoizten direnak baldin badira, jakintza eta egia horiek ez zaizkie baliagarri izango euskal intelektual kritiko eta zorrotz izateko. Izatekotan ere, balore unibertsalago batzuren mezulari bihurtzen dira eta balore-ideia hauek herrian herriko kontraesan-gatazkekin bat ez baldin badatoz, eta bat etortzea ezinezkoa da Euskal Herriak horrelako kultur ideologiaren ekoizpen arlotan lekurik ez duelako, lekuan lekuko balore-ideologiei herrizulo-dogmatiko-ezjakin deituko zaie.

---

### **Intelektualaren betekizuna dela eta**

Bizpahiru filosofo-intelektualen eskutik azaldu nahi genituzke intelektualaren zenbait oinarritzko ezaugarri. Ezaugarriotan bere bilakabideaz hitz egiten da, baita bere jarreraz ere. Nondik etorri datorren eta zerk moldatzen duen alde batera edo bestera.

Foucault-ek bi eratako intelektualak aipatu izan ditu bere lanetan. Eta gero ikusiko dugunez, Euskal Herrian eredu

bakoitzari dagokiona aurkeztuko dugu, honelako parekatze mekanikoek duten arrisku guztiarekin. Hona, besterik gabe, bi eredu horiek: "El intelectual "universal" deriva del jurista-notable y encuentra su expresión más plena en el escritor, portador de significaciones y de valores en los que todos pueden reconocerse. El intelectual "específico" deriva de otra figura, no del "jurista-notable", sino del "sabio-experto". Intelektual berri honen egitekoa ondorengo hitzetan zehazten digu filosofo frantsesak: "Un nuevo modo de "ligazón" entre la teoría y la práctica" se ha constituido. Los intelectuales se han habituado a trabajar no en el "universal", en el "ejemplar", en el "justo-y-verdadero-para-todos" (...). Han adquirido así una conciencia mucho más inmediata y concreta de las luchas".

Foucault-en esanei bagagozkie, aurreneko eredu zaharra pikutara joana da jadanik mendebaldeko herrialdeetan behinik-behin. Honez gero XIX eta XX. mende hasierako intelektual-idazleak, gizon jurista-prestuairen irudira eginak, ez dauka zer esanik balore unibertsal guztiak berekin baditu ere. Unamuno bat, adibidez, lekuz kanpo dago gaur egungo Euskal Herrian. Intelektual "espezifikoa" eredu jaio dela adierazten digu Foucault-ek, bere herri edo klase sozialaren balore-arazoak aintzakotzat hartzen dituen. Eta eredu honetan sartuko genuke gerra ondorenak eman duen euskal intelektualik garaiena: Koldo Mitxelena. Badago alderik, Unamunogandik Mitxelenagana, egon ere" lehenak estatu-boterearen balore ez-euskaldunak ditu goiburu,

bigarrenak bere jatorri-izakeraren tasunak uztartu nahi ditu jakintza unibertsalarekin.

Intelektual modernoaren betekizuna askoz ere mugatuago dago Pulantzas edo Göran Therborn-en irizpideetan. Aurrenekoaren ustez, estatuaren morroi huts, morroitasunak horren mekanismoak begien bistan agertzen ez diren horietakoak badira ere: "Los intelectuales, como cuerpo especializado y profesionalizado, han sido constituidos en su funcionización-mercenarización por el Estado moderno. Estos intelectuales, portadores de saberciencia se han convertido (universidades, institutos, academias, diversas sociedades científicas) en funcionarios del Estado, por el mismo mecanismo que convirtió en intelectuales a los funcionarios de este Estado". Neurri handi batean, Pulantzas-en iritzi-uste honek ez du ezer usteletik, eta bere zuzentasunaren lekuko bilakatzen dira estaturik gabeko herri-nazioak. Hauetan, Euskal Herriak hasita, intelektualak ez dauka jakintza-zientziaren garapen-burutzapenerako egitura-erakunde isolaturik estatuarekiko. Esan nahi baita, zientzia eta teknologiatik hasita etnografo xumeraino doazen azpi-egiturazko bitarteko guztiak Estatu modernoaren estrategi egitasmo bateratuaren ildotik artikulatuak daudela. Ondorioa, larria bezain sinestezina: Estaturik gabeko herri-nazio hauetan intelektual "natioak" edota etengabeko kontrakorrantean zorabiatuak bizi dira, edota azkenerako intelektualgintzaren mekanismo estataletan integratzen dira (eta hau ez da inolako funtzionario-nominatan egotea noski).

Göran Therborn-en esanetan, intelektualak maiz askotan halakoxe ilusio-ametsak izaten baditu ere, ez dio klase-izaerari darion "marka"ri aldegiten: "Los intelectuales, especialistas en las prácticas discursivas, están vinculados institucionalmente a las clases sociales, por grande que sea la "autonomía relativa" de su "sometimiento-cualificación". La formación de grupos y estratos de intelectuales especializados es un aspecto de una división social del trabajo más amplia que la implícita en las relaciones de producción.

La formación intelectual se enmarca en el universo global de las ideologías, que no puede reducirse simplemente al dominio de las ideologías de tipo inclusivo-existencial, la religión y la filosofía secular, y con las de tipo inclusivo-histórico ligadas al estado". Egia da, eta egia hori frogagarria da gurea bezalako herri-nazioetan, intelektualen determinazio ideologikoa ez dela klasetasunera murrizten. Euskaltzale intelektualaren sorrera eta garapena, Kanpiongandik Barandiarangana, ideologia etniko eta nazionalari zor zaio: honek denboran zehar hartu dituen forma desberdinak moldatu ditu, lehen-dabizikoa fuerista-euskaltzale eredura, eta bigarrena nazionalista-euskaltzalera. Hala ere, eta auzi hau lehen ere planteatua dugu, intelektualon baitan determinazio ideologikoak era askotakoak izanagatik, badirudi ideologi-elementu batzuek beren dominioa ezartzen dutela eta intelektualaren izaera etniko-nazionala euskarri ahulez

oinarriturik ageri zaigu haiengan estatuaren mekanismoek duten eraginarekin alderatzen dugunean.

---

### **Intelektualaren mugak Euskal Herrian**

---

Antzinako Erregimenaren aurka berdintasun eta justiziaren izenean mintzo den intelektual lurperaturik omen dago. Gerra nuklearraren kontra, heriotzaren kontra altxatu den intelektual konprometitua, inoiz estatuaren aurka eta inoiz estatuaren alde dagoela jakinarazten digu Foucault-ek. Pulantzas-en epaia gogorragoa da eta inork gutxik onartuko luke: intelektualen artean, inork gutxik onartzen baitu, norberak estatuarekin inolako lotura organikorik eduki gabe, norbera Estatu horren kateamendu ideologiko-kulturalean katebegi bat gehiago izan daitekeenik.

Therborn-en tesia bertan behera ukatzea zailagoa egingo zaio: honen arabera, izan ere, intelektualgintza sistema ideologiko askoren baitan txertaturik ideologia sozialaren aldera lerratuak batzuk, existentzi-ideologietara makurtuak beste batzuk. Erraza da nok bere diskurtsoaren izaera klase sozial jakin baten funtzioan taxaturik dagoena ukatzea; besterik da ordea, leherrenak egin arren, iharduera diskurtsibo horiek era bateko edo besteko sistema ideologiko zabalen koordinatuetan kokalekurik ez dutela erakutsi nahi izatea.

Nire uste apalean, delako intelektual "espezifikoa" horien presentzia nabarmena da Euskal Herrian,

intelektualok etni edo nazio-enborrez kultura espainolaren ordezkariak ez direnean. Inoiz baino argiago eta gardenago azaleratu da intelektual espainolisten jarrera oraintsu euskararen auzia dela eta ez dela: hauek, Euskal Herrian, ezin dute intelektual "espezifikoa" paperik bete. Therborn-en hizkera erabilia, Estatu-nazio-etniaren inguruan hezurramitzen den ideologia inklusibo-historikoan, Espainia dute beren identitatearen erreferentzigune nagusia. Intelektuala euskalduna "sentitzen" denean, besterik da kontua: hasteko behinik-behin, aurreko horiek ez bezalako erreferentzigunea daukate beren ideologia sistema zehatz horretan. Baina horrek ez luke esan nahi halere Estatuarekiko autonomia erlatiborik daukatenik gainerako sistema ideologiko-kulturaletan. Esana dugu, eta berriz ere gogoratzeak mereziko luke, intelektualgintzaren mekanismo nagusiak bere baitan egituraturik dauzkan botere-erakundearekiko amorerik ez emateko, zorabiozko kontrakarrean bizi beharra daukala

halakoak. Eta zoritxarrez, banaka batzuk dira horretarako gai direnak. Eta "gaitasun" hori, jakina, ez da bakarrik ideologikoa: intelektualak gure herrian amorerik ez emateko gauza askoz ohartu behar du, eta besteak beste, egia/boterearen arteko katramila guztiaz.

Euskaldunon zoritxarrerako, egia guztia esateko, azken mekanismo-tekniak honetaz jabetzeko maila intelektuala ematen ez duten guzti haiek, enbor etnikoz "hemengoak" badira ere, jokamolde orokor-politikoan Estatuarekiko morrontzatik ez dira irten. Hemen diodanaren froga garbia da, oraindik orain, Joxe Agustin Arrietak kritikatu behar izan duena: "A la vista del auge que está retomando el nacionalismo español en nuestro país, gracias, entre otras cosas, a la cobertura que recibe de intelectuales euskaldunes como ustedes, obsesionados única y exclusivamente por criminalizar a los abertzales independentistas, ..." (EGIN, 1991-VI-30)

---

## Bibliografía

---

FOUCAULT, M.; *Microfísica del poder*, Ed. La Piqueta, Madril, 1980.

POULANTZAS, N.; *Estado, poder y socialismo*, Ed. Siglo XXI, Madril, 1979.

THERBORN, G.; *La ideología del poder y el poder de la ideología*, Ed. Siglo XXI, Madril.